

a u z o z a u z o

Lau Haizeta, Garbera... zein da inguru honen etorkizuna?

Lau Haizeta inguruan egin nahi den parkeak eta Eroski hipermerkatuak kezka handia sortu dute auzoko biztaleengan. Arazo honen inguruan bi koordinakunde edo kolektibo sortu dira: Lau Haizeta eta Garbera.

Natura zaintzea helburu

Lau Haizeta kooordinakundearen helburuak fauna agertarazi dezaketen basotxo autoktonoak babestea, baserriek zonaldeari ematen dioten nekazari izaera iraunaraztea eta ingurunea erasotzen duten ekintzak galeraztea dira.

Helburu hauek lortzeko parke landatar bat egin nahi dute, inguruko alderdi urbanoentzat alternatiba izan dadin.

Baina nekazal zonaldea apurtzeaz gain "Lau Haizeta proiektuak" Garbera berdegunearen inguruan 47.000 metro karratu izango dituen Eroski hipermerkatu handi bat eraiki nahi du.

Eroskiren aurka

«Lau Haizetako proiektua» berbideratzeko eta Eroskiren eraikuntza era-



Imanol

gozteko sortu da Garbera kolektiboa. Garberak instituzioei eskatzen dien lehen gauza informazio ona da. Beraien ustez, Eroski kalte konponezinak sortuko ditu Altza, Intxaurren eta Herreran eta horregatik eraikuntza honen aurka agertzen dira.

Bertako dendari eta bizilagunak hipermerkatu honen beldur daude. Jendeak ez du sinisten lanpostu berriak sortuko direnik.

Garbera eta Lau Haize-

ta kolektiboak lanean ari dira auzo eta udalerrri ugari ikutzen dituen ingurune honetan azpiegitura eta atsedengune naturalak egiteko, bata parke landatarra sortu nahian eta beste Eroski hemendik eramanean nahian.

Lanpostuak gora-behera

Eroskiko arduradunek eta Institutuzio publikoek berriz, ez dute egia guztia

plazaratzen eta hasiera batean hipermerkatu honek 600 lanpostu sortuko zituela esan bazuten ere, ikusi da 200 lanpostu baino ez dituela sortuko.

Eta guzti honen alderik tristeena da jakitea Lau Haizetako baserri eta baserriarrek ez dutela oraindik informaziorik jaso, ez dakite zer gertatuko den beraien baratzeta eta nekazal fruituekin.

Garbera inguruko lur sailek zer esan asko eman dute. Eroski hipermerkatua irekitzeko proiektua dago. Eroski eta Udala harremanetan dabilta hipermerkatua eta zezen plaza egin edo ez egin eta non negoziatzen.

LARRAITZ GARMENDIA



CALZADOS ZABALO

Oinetakoak - Poltsak eta osagaiak


Larratxo 16,
☎ 39 14 15 DONOSTIA

BIDEBIETAKO INSTITUTUA

• Eredu guztiak

Matrikulazio epea maiatzaren 4tik 18ra

☎ 390240 ☎ 393877



a u z o z a u z o

herrera-bidebieta

herrera baserriz soilik osatua zegoen auzoa zen. Hainbat eta hainbat tokitan bezala, zabalkunde industrialak bere legeak ezarri zituen, eraikin ugari egin zen denbora gutxian eta gure auzoa bidegurutzez josia geratu zen.

Zabalkundea hasi baino lehen, baserria eta nekazaritza ziren Herrerenaren sostengu ekonomikoa eta bertan herri bizitza egiten zen.

Errepideak nagusi

Herrera 1900. urtean hasi zen hiri itxura hartzen. Industrializazioak bultzatuta eta bere kokagunearen ondorioz, Herrerak alde guztietan bidegurutze eta komunikazio sistema modernoak dauzka.

Jose Elozegi Alkatearen ibilbidea esate baterako, N-1 errepidea da eta beronek lotzen ditu Donostia eta Errenteria. Larratzora garamatzen bideak ere erdi erditik zatitzen du gure



Argazkiak argi azaltzen digu. Herreran, mendearen hasieran, baserri bizitza zen nagusi Donostiako inguruko auzo gehienetan bezala. Industrializazioa eta zabalkundearen ondorioz, gehien aldatu den auzoetakoa bat dugu orain.

Bidegurutzeen arteko auzoa

auzoa. Gainera, Donostia inguratzen duen bariantea bertatik pasatzen da eta Buenavista aldera joateko ere, beste bide bat du Herrerak.

Errepide sare nahasi honi burdinbidea ere gehitu behar zaio, Renfe entrepresak auzoa gurutzatzen

du Madrid-Irun sarearekin eta Eusko Trenbideak-ek ere Jose Elozegi ibilbidearen bestekaldean dauka bere tren geltokia.

Herri giroa berreskuratu nahian

Komunikazio sare nahasi honek, XXI. mendea-


ren atean gaudenean, Herrerenaren ezegonkortasuna eragin du eta lotarako auzo bihurtu da. Espero dezagun Udalak dauzkan plangintza berriekin, Herrerak galdutako herri bizitza berreskuratzea lortuko duela.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnoa.:391267)

Horiek agian ez dute behar,



eta zuk?



- Euskarazko lehen Hiztegi Entziklopedikoa
- 12.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez
- 8. alea kalean dagoeneko



Obra honi buruz informazio gehiago jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak

Helbidea

Herria P.K.

Lanbidea

Tel.

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.
LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA